



# Bizkaitarrei Bizkaieraz



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

## Balendin Aurre-Apraiz

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Lekeitiar erraldoia  
Resurrección  
María de Azkue III

# URTEROKO BATZAR NAGUSIA

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2017-2018 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA  
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

**50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



## Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue III

*Klaudio Barroeta*


### 9-Azkue Izlaria.

Erljioko gaietan aski izan baziran Azkuek emondako sermoiak, euskeraz geienak, ez ziran gitxiago izango bere bizi luzean zear emon ebazan itzaldiak, gai oso ezbardinak erabilliz, batez be musikaz eta linguistikaz. Idatzune mugatua danez, garrantzitsuenak soillik aipatuko dodaz emen, argitalpenei esker ezagunak direnak.

Bilboko Euskal Etxean, 1901.eko Otsaillaren 15an, Euskalerra musikaz itzaldi bat emon eban, 14 musikazko adibideekaz urte berean Gregorio Astorekak argitaratu ebana. 1904.eko Irallean itzaldi bi emon ebazan Donostian Probintziako Institutoan, bata 23an, Euskeraren zabalkunde eta euspenerako biderik egokienak gaiari buruz, eta bestea 29an, Euskeraren azentuaz. Itzaldi bi oneik emonaz ondoren, Toursera joan zan Iztegiaren lanekin jarraituteko.

Euskalerraren Alde aldizkarian, 1912.eko Ekainean, oar irakurgarri bat emoten iaku: Bizkaiko erri andienetan 40 itzaldi emongo dauz Azkuek euskeraz. Ez dakigu asmo au bete ba zan edo ez, baña erritaratze lanetarako gizon onek eukan gaitasuna adierazten deusku albisteak. Urte batzuk lenago Kolonian ezkuntzaz artutako oarpenez baliatuz, 1916.eko Apirillaren 12an Bilbon mintzatu zan Oinarrizko Eskola Alemanian gaitaz, bertako eratzalle eta pedagogi bideak azalduz. 1918.eko Urtarrilaren 21ean eta Martxoaren 18an, Euskal Kultur Batzordearen erakuntzapean, itzaldi bi emon ebazan Euskalerra musikaz, urrengo urtean Bilbaina de Artes Graficas etxeak argitara emon ebazanak.

Euskaltzaindia sortu zanean izkuntzaritza ikerketak azaltzeko eskariak gero eta geiago izan ebazan, bear bada. Ala Oñatiko I.Eusko Ikaskuntzaren, 1918an, Euskal fonetikaz mintzatu zan eta Gernikako III.Batzarrean, 1922.eko Iraillaren 13an, bariro izkuntza gaiak erabilli ebazan Euskal Semantika gaia azalduz. Bi Batzarre auetako liburuetan argitaratu ziran itzaldi bi oneik.



Txomin Agirre ondarrutar adizkidea il zanean, idazle onen gorespena egin eban 1920.eko Apirillaren 5an emondako itzaldi batean. Frai Franzizko Gasteizkoari be itzaldi bat zuzendu eutson Begarako Erreal Seminarioan 1922.eko Martxoaren 9an.

Musika gaiak bultzatzen eben ikusi dogunez, on Resurreccionen ikeketarako leia. Arlo onetan 1928.eko Azaroaren 21an Gazteizko Eliz Musika Jardunaldietan itzaldi bat emon eban gai orretaz Tradizioa gure elizako erri musikan, biltzar egunetako kronika liburuan, bertan kantaturiko musikalanen eranskin batekin, argitaratu ebana.

## 10. Azkue folklorista.

Ikusi dogunez, folklore ikerketarako zaletasuna sortu iakon Azkueri abadegai garaian, beraz Jose Migel Barandiaran jaunak 1920an Gazteizko Abadegaitegian Eusko Folklor Elkarte sortu orduko. 1884 geroztik saiatu zan Azkue erriarengandik zuzenean folklore gaiak biltzen edozein paradaz baliatuz. Azkueren musika artxiboan anitz kuaderno, blok, liburu, partitura etabar gordetzen dira bizian zear pillatu ebazank. Baserriz baserri. Zartegietan edo bere poltsikotik ordaintzen ebazan gastu andiekin eratutako billeretan egiten ebazan oarpenez beterik dagoz eskuizkribu oneik. Ordurako zarrak ziranaz aukeratutako atso eta agureak beraiengandik ikasitako gaiak benetan antzinekoak zirala ikusten eban Azkuek alde batetik eta orrez gañera arrotz izkuntza eta oiturekin nastuta ez egozan euskaldun garbiak zirenez gero euskal kultura jatorraren eredutzat artu zitezkenak.

Bi bilduma andi osatzeko elburua eukan gai guzti oneik: -musikazkoa ta literarioa. Gaztarotik bururatu iakon Azkueri Euskalerriko erri kantu eta jakintzako bilduma bi orreik eratzeta eta bere bizi luzearen zati andi bat lan orretan emongo deusku.

## 11-Euskalerrri Kantategia.

Erromantismoagaz batera sortu zan XIX.mendean erri gaienganako zaletasuna eta ortik etorkon erri bakoitzari, beste gauza batzuen artean, erri melodiak eta kantak bilduteko ardura. Leen euskal bilduma 1826an Gipuzkoako Dantzen doñuekaz Juan Inazio Iztuetak osatu ebana da.

Gero etorriko dira Txaho, Lemazou, Michel eta Villeheliorenak, 1870an Sa-laberrik argitaratu ebana eta Vinson eta Bordesanak. Baña bilduma oneik Ipa-rraldeko kantik soillik emoten deuskue, salbuespen batekin: Vinsonenak Gerni-kako Arbola egoaldekoa emoten deusku. Manterola eta Santestebanen bildumak Gipuzkoako kantik argitaratzen dabez. Bizkaiko kantuen leen bilduma Barto-lome Erzillak egin ebana da, gure men-dearen asieran Bilboko Dotesiok argitara emon ebana. Sei kuaderno dira 35 kan-tukin, pianoaren laguntzaz emonak. Oso bitxia da bilduma au.

Resurreccion Maria Azkue leenengo eta Aita Jose Antonio Donostia gero, dira lan astitsu bat leporatuz, Euskal Erriko kantik biltzen dabizenak gure euskal erri musikaren batasunaz. Eta beraien lanak esker oneko saria lortzen dabe. Euskal kantategirik oberena saritzeko leiaketa ba-tera dei egiten dabe 1912an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek. Ordurako bi millatik gora doñu kantu eta dantzarako bilduta eukazan Azkuek eta Vox Populi (Erri aotsa) ezaugarriean 1689 aozko me-

lodiak eta 121 musika galluentzat aurkestu ebazan leiaketara. Aia Donostiak aurkeztu ebana ez zan ain ugaria izan: 499 kanta eta 24 doñu musikagalluentzat.

1915.eko Martxoaren 20an Migel Lo-redo, Aureliano Valle eta Juan Carlos Gor-tazar epaimaikoek Azkueren bildumari leen saria emotea erabaki eben. Aurkeztu-takoen artean milla eta bat kanta eta melo-di aukeratzen dauz onek eta 1920 inguruan Bartzelonan amaika tomotan argitaratzen ditu. Beste kantategi saritua, Aita Donos-tiarena, Madriden argitaratu zan 1921an Euskal Eres Sorta izenburuarekin. Azkue-ren Euskal Kantategia berargitaratu dau 1968an La Gran Enciclopedia Vasca argi-taletxeak facsimilean eta aspaldik agortua dagoen Aita Donostiarena be laster berar-gitaratuko dalakaon gagoz.

Orrez gañera beste lan bat aukeratu eban Azkuek: Kantategitik 200 melodia autatu ebazan eta kantu ta pia-norako armonizatuz, beste Kantategi Berezi





batetan argitaratu ebazan Bartzelonan 1921an. Kantategi oneikaz baeukezan gure musikagilleek zer artu aozko ta musikagalluetarako musikagintza iradotzeko.

Musika folkloriko bilketetan ez zan au bakarria izan Azkuek irabazitako saria. Lizarrako Frai Diegoren IV Mendeurrena ospatu zanean, Lizarra eta Merinaldekoiei leentasuna emonaz, Nafarroako erri kanten bildumarik oberena sarituteko leiaketa bat antolatu zan. Bere bilduma igorri eban Azkuek baña ezaugarria ipintea aztu iakon. Onartu eben lana epai-meikoeak eta postako jatorria kontutan artuz “Bizkaia” ezaugarria jarri eutsoen bere kabuz. Azkuena izan zan saria irabazi ebana eta Aita Hilario Olazaran Lizarragakoak, Lekarozen kaputxino egoanak, urbilsaria lortu eban.

## 12-Euskalerraren Jakintza.

Musikazko fitxekin batera, oitura ta siniskeriak, erri olerkiak, aur jolasak, atso-titzak, esakerak, aokorapilloak, goitizenak, iragarkizunak, ipuin eta irakurgaiak, eta beste, biltzen ebazan Azkuek. Izkuntzari-tzako lanak burutu ebazanean 1932an, gai guzti oneik taiuten asi zan 68 urte ebazalari eta Easpasa Calpe argitaratzalleari agindu eutson Euskalerraren Yakintza lau tomoetako lan itzela argitara ematea.

Leen argitalpena 1935 eta 1947 bitartean kaleratu zan. Argitalpen au presta-

tzeko ainbat argazki eta Inazio Zuluaga, Balendin Zubiaurre, Ginea, Tillac, Goiko, Garabila, Txiki, Molto, Garmendia, Ajubita, Arostegi, Urreta etabar irudigileen marraskiekin baliatu zan.

Idazlan elebidun au laster agortu zan bere mami balotsu eta itxura ederrari esker. Egillea il ondoren bigarren argitalpen bat kaleratu bearrean aurkitu zan argitaratzailea 1959 eta 1971 bitartean. Bigarren argitalpen au be agortua da eta dirudienez laster izango da kalean irugarrena, euskal etnologiako gaiak gero ta eskari geiago deukielako.

Kantategia eta Euskalerraren Yakintza burutu ebazanean, amets bat bete eban Azkuek :gerorako bildu ta imprimatu galtzen egoan ondare bat eta berari eta beste folklorista batzuei esker, betirako gorde geinkeana.

## 13-Azkue musikaria.

Azkueren musikarako nortasuna aztertzen danean uts asko egiten dira, askotan on Resurreccionek berak idatzitako oarretan oñarritzen diralako eta buruz eta arinki idatzirik egozalako. Euskaltzaindiko Artxiboan gordetzen diran lanen eskuizkribuak eta gutunak aztertu ezkeroz, aipatutako errakuntzak zuzendu daikeguz eta bere musigintzako kronologia finkatu, naiz eta laburki liburu onetan emon bear Azkue musikariaren biografia.

Jaioterrian artu ebazan leen ikasketak burutu ostean bere baitan eukan musika senak iradoki eutsozan berberak asaskalditxuak deitzen ebazan musika lantxuak. 1884an konposatu eban leen musika lantxua eta abadetu zan urtean Regina coeli bat musikatu eban, aots bat eta organurako. Salamankan urte berean kantatu zana. Miserere bat be musikatu eban bertan, 1891.eko Aste Santuan abestu ebana. Meza bat be musikatu eban eta orkestako laguntza ipinteko asmoa be ba eukan. Baña musikalan guzti oneik ez dabe gerokoeak agertuko deuskuen iradokimen eta teknika.

1888.eko neguan, Bilbon kokatzen danean, asten da Azkueren benetako musika eskuntza Jose Sainz Basaberekin armonia ikasten dabillenean. Egia esan, eztauka

denbora askorik estudio orreitarako, bere leen Gramatikaren prestakuntzak (1891) eta beste lan batzuk ez dautsoelako asti askorik emoten. Baña astiunetan eta Euskaltzaindiko Artxihoan gordetzen diran koaderno batzuetan, Hauptman, Paer, Ubeda, Aldega, Benito, Eslaba, Arriola, Altuna, Cherubini, Mozart, Schuber, Goikoetxea, Ledesma, Victoria etabar musikagillen eliz musikalanak kopiatzen dauz. 1890an Arriaga Antzokian Wagnerren Lohengrin entzun eban, betirako Azkueren musika eredia biurtuko zana.

1895.eko otsaillaren 2an estrainatzen dau leen lan profanoa: Vizkaytik Bizkaira, Astuik urte berean argitaratu ebana. Iturribideko Langilleen Patronatoan antzestu zan zarzuela au. Bere lan onen mezuak emon eutsozan Azkueri “egunkari liberalen aldetik ainbat irain, azken baten oore biurtzen diranak...” 1897an estrainatu ebazan Azkuek beste zarzuela bi elebidunak: Eguzkia nora eta Sasi eskola, azken au Martxoaren

1ean, Jardinez kaleko Euskaldun Biltoki gela nagusian. 1898.eko Otsaillaren 20an antzetzuko dau toki berean Pasa de Chimbos eta gerotxoago, urte berean, Colonia Inglesa. Azkueren leen ekintza pedagogikoei loturik da-

goz lan guzti oneik. Eztau barriro gai au erabiliko 1917an Aitaren Beldur antzestu arte.


Baña ez dau Azkuek bertan bera musikazko eziketa izten eta bide onetan jarraitzeko polifonia klasikoari eusten dautso. Charles Bordeseekin arremonetan asi da eta Parisen argitaratzen diren Tribune de Saint-Gervais aldizkaria eta Polifoniaren Antologia eskuratzen dauz. 1897an musikazko kuaderno batzuk argitaratzen dauz, Euskerazko Eresiak, erri kanta armonizatuekaz eta Eleizarako Eresiak, aotsetarako eliz kantuekaz. Euskal musikarekin arremonetan asita egoan Bordes musikagilleak, 1896an La Musique populaire des Basques itzaldia emonda eukan eta, Azkueren lan auek eskuratzen dauz eta 1897.eko Ekainaren 7an zera idazten deutso: Obeziñak direnik ezin det esan baña musikarako joera bat eta gerorako itxaropen andi bat agertuten dabe. Lan egin bearko dozula argi dago, baña lan ez egitea bekatu astuna izango litzake”. 1897.eko Abustuaren 21ean eta 22an Donibane Loitzunen antolatu ziran Euskal Tradizioaren Festetan, Bordesek Azkueren onetariko lanen batzuen batzu kantatu eragin ebazan.

*Jarraituko du* →



# Balendin Aurre-Apraiz

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*



## Ajangiz:

Auxe da Balendin Aurreren zorterrria. Emen jaioa dogu 1912 urtean. Axangiz errixka Bizkaian, Gernika aldeko muiño eder batean jarria dago. Ikus-toki berezia da Gernika inguruetako etxe, zelai eta mendiak atsegiñez begiratzeko.

## Bere familia:

Zoritxarrez, alde batetik, bere familia, guraso, seme-alaben daturik ez daukagu, baña beste aldetik ziur jakin dakigu orduko garaietan bere familia Kristau bizitzaren eredu bikaña zala. Balendin, barriz, eliz gizon argi ta jakintsua, ta euskera gaietan zearka ibilli barik zuzen doa gauzak legez eta euskal araudien bidez zuzentzera.

Idazlari trebe ta joria izanik bere idazlanak euskal erriko karmeldarrak liburutegian daukez. "Balendin zintzoa eta benetalaria da bere idazlan gutietan. Bere gogo-pozak, kezak eta min biziak tolestura aundi barik erakusten daki. Beti Bizkaiko erri-euskera jatorraren usain baserritarra zabaltzen diardu. Bere jokabidea jarraituz nai dau, adore biziak, euskeraren jatortasuna zeatz jagon erderaren menpean ez jausteko"

## Erriko Euskeraren babesle azkarra:

Erriko euskera gaietan ara emen bere eritzi gogoangarriak: "Beste izkuntzen antzera, euskerak be baditu bere esakera jatorrak barne muiñetan josiak. Belaun aldirik belaunaldi esakera asko bizi izan dira geugana iraun dabenak, baña beste asko galduak izan diranak. Oraingo euskaldun askok, euskeraz diarduenean erderara jo oi dabe esakizuna atontzeko. Sarritan entzun oi dogu gure artean "ze ume polita", "ze egun ederra", "ze otz dago" etb. Euskaldunak era asko daukaguz "ze" arrotz ori baztertzeke. Ara emen: "au ume polita", "Au umearen polita", "ume au bai polita" "Au da egunaren ederra", "Egun au



bai dala ederra” “egun au baño edera-  
gorik”, “au da otza”, “egundoko olako  
otzik” etb.

Como no? Ori baztertzeko guk  
euskaldun jatorrak esango dogu:”oba  
ez” Ederto diño ba Kerexeta jaunak  
Orbela liburutzuan “Egingo doguz-  
”oba ez”, mamuak edur ganean ta  
zintzo jokutzen badogu indarberri-  
tuko dogu gure euskara, “oba ez” naiz  
ta arerioak geureak eta besteak izan.  
“oba ez” “Qui scribit, bis legit” *“Idaz-  
ten dabenak sarri irakurtzen dau”*.



## Garan modukoak (Txikitina)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2017ko sari leiketa. bigarren saria

Korrika batean iritsi zan etxera. Amari lepotik eldu eta musu arin eta gozo bat eman eutson.

— Arratsaldeon, esan eutson amak motxila lepotik kendu bitartean.

— Arratsaldeon ama, erantzun eutson txaketa besotik beera kentzen eban bitartean.


— Zelan eskolan? Oso pozik ikusten zaitut.

— Bai!, gaur asteko egunik onena da! Ballet-eko klasea tokatzen da ama! Andereño Maite onena da, asko irakasten deusku.

— Ea ba,           jan egizu merienda, indarrak artzeko eta jantzi arro-  
pa egokia, zuk gura dozuna aukeratu.

Eskailerak binaka igo ebazan. Bere gela pasillo luze baten bukaeran egoan, gurasoen gelaren ondoan. Sano gela argitsua zan, ormak kolore morekoak ziran eta oea panpinaz beterik eukon. Sabaitik zintzilik oe guztia inguratzen eban errezeltxo zuri bat, zinta arrosek albo batera biltzen ebelarik errezeltxoa oera sartu aal izateko. Armairuak oearen albo bietan egozan eta leio andi bat oearen aurrez-aurre.

Duda barik armairura urbildu eta atea zabaldu eban. An egoan bere urtebetetzean oparitu eutsoen ballet-eko tutu arrosa. Eskuekin ferekatu eta janztea erabaki eban. Ispiluaren aurrean arro-arro egoan. Baina ain gustukoa eban ballet-eko tutu-a erantsi eta maia baltz batzuk jantzi ebazan kamiseta baltz bategaz.




Prest nago ama! eta korrika bizian atearen ondoan jarri zan kanporako gogoekin.

- Baina...gaur be ez, esan eutson amak goibel.
- Ez ama, gaur be ez.

Amak asperen egin eta inportantziarik ez ematea erabaki eban, baina barrutik oso arduratuta egoan. Izan be Mikelek bizitza bikoitza eukon, etxean era batera bizi eban bere bizia, askatasunean, poztasunean, maitasunean, lasaitasunean. Etxeko atea zearkatzean ostera, gogortu egiten zan, lotsatu, ilundu. Antzezten ematen eban eguna kalean. Jakin bae-kialako bere lagunek barre egingo eutsoela mutila izanik neska sentitzen zala, eta nesken gauzak gustatzen jakozala jakiten bae-ben. Bere etxeko gotorlekutik kanpo ezin eban gura ebana egin. Eta orrek larritzen eban ama. Ez eban beartu gura, denbora eman nai eutson, baina urteak aurrera joan aala lortu eban gauza bakarra gero eta obeto antzeztea zan, eta etxetik kanpora gero eta gutxiago egotea.

Mikelek ez eban lagunik etxera eroaten, ez ebalako gura inork bere logela ikustea eta bere sekretua jakitea. Orregatik lagunek ez ebeen beraien jolasetan sartzen. Gero eta geiago urruntzen zan lagunengandik. Kanpora ateratzeko egun bakarra baletara joan bear eban eguna zan. Naiz eta egunik perfektuena ez izan, bere tutua ezin ebalako eroan, oso ondo pasatzen eban baletako klaseetan. Lagun berezi bat ere baeukon, Jon. Oso ona zan ballet-ean eta baita futbolean jolasten be. Baletako saltoak eta txiri-bueltak erabiltzen



ebazan futboleak lagunak saiesteko eta gola sartzeko. Golak sartzen ebazenez lagunak ez eutsen ezer esaten ballet-era joateagatik eta ballet-eko pausoak erabiltzearen.

Otsailaren 5ean, Jonen urteak ziran, 10 urte betetzen ebazan, eta Mikelen sorpresarako bere etxera gonbidatu eban tarta jatera. Ez ekian zer oparitu eta ama eta biek erroto bat osatzeko piezak oparitzea erabaki eban.

Auzoko denda txiki batera joan ziran oparia erostera. Denda oso txikia izan arren jostailuz beteta egoan. Ezin zan dendan zear ibili. Saltzailea emakume zaar bat zan eta buruz ekian zer eukon dendako txoko bakoitzean. Izan be amak erroto eskatu eutsonean eskailera artu, eta ate ondorantz abiatu zan, erakusleio gaineko apaletik jaitsi eban kutxa baltz bat. Barruan tamaina desberdinetako errotoak egoan. Biori gustatu jakun txakurtxo baten erroto. Oparitarako paperean bildu eta gustura atara ginan dendatik.

Arratsaldeko bostetako Jonen etxearen aurrean gengoan ama eta biok. Jonen amak itz egin eban nire amarekin, zortziak aldera nire bila etortzeko, bitartean jolasten ibiliko ginala eta.

Jonek egongelara lagundu nendun. Oso polita egoan egongela, urtebeteetako globo eta apaingarriz beterik. Familiakoekin izketaldia izan ondoren tarta itzaltzeko unea iritsi zan. Amak tarta zati bana eman euskun. Bizkotxoeko tarta zan, erdian eta goialdean txokolate kaparekin, oso gozoa egoan. Tarta jandakoan oparia luzatu neutson zabal egian. Askok gustatu jakon. Gero niri begira geratu zan, eta buruarekin keinu bat eginaz egongelaren ondoko gela seinala-

tu eustan. Nik bere gelara joatea gura ebala ulertu neuen eta bere atzetik abiatu nintzan. Zelako sorpresa artu neuen Jonen logela ikustean. Inondik inora ez nauen imajinatuko orrelakoa izango zanik. Logela sano andia zan armailu andi bategaz. Armairuak ez eukon aterik eta barruko guztia ikusten zan kanpotik. Arropa pila bat egoan, soinekoak be bai. Baina batez be, kirolerako arropa egoan, futbolerako kamiseta eta praka laburrak, galtzerdi luzeak, takodun zapati-lak... Ormako apalak panpina eta kotxez beterik egoan. Futbol talde baten posterra egoan ate arrosan zeloz itsatsita. Oeak azpian tiradore arrosak eukoan eta ariel printzesaren oe-gainekoa. Leioa be oso andia zan errezel arrosekin. Mikel txundituta egoan. Ezin eban sinetsi, ez zan ezer esatera ausartzen. Jon aurreratu jakon:

— Zer? Ez al da zure gustukoa?

— Bai asko, baina mutila...

— Lasai Mikel, nire izena berez Jone da. Neska jaio nintzan, baina txikitatik sentitu naz mutila. Asieran familiagatik bizitza bikoitza eramaten neuen, etxean Jon izan aal nintzan eta kalean Jone. Baina orain ikastetxez aldatu naizenez eta inork ez nauela ezagutzen aprobetxatuz, familiarekin berba egin ostean eta mila-ka psikologo informe eta gero, gizartean ni sentitzen naizen modukoa azaltzea erabakgi genduen, niretzako oberena eta naturalena zalako, antzeztu barik, sufritu gabe....

Eskerrak emon eta Mikel etxera joan zan ziztu bizian.

Urrengo eguenean korrika iritsi zan etxera. Amari lepotik eldu eta musu arin eta gozo bat emon eutson.

— Arratsaldeon, esan eutson amak

motxila lepotik kentzen zion bitartean.

— Arratsaldeon ama, erantzun zion txaketa besotik behera kendu bitartean.

— Zelan eskolan? Sano pozik ikusten zaitut.

— Bai! Gaur asteko egunik onena da! Ballet-eko klasea tokatzen da ama!

— Ea ba, jan egizu merienda indarrak artzeko eta jantzi arropa egokia, zuk gura dozuna aukeratu.

Eskailerak binaka igo ebazan, armairuko atea zabaldu eta ballet-eko tutu arrosa jantzi eban. Arro-arro sentitzen zan bai eta berean urduri, Jonek zer pentsatuko ete eban beldur apur bat eukon. Eskailerak jaitsi eta amaren ondoan jarri zzn ostegunero moduan, baina egun onetan bai eranztungo eutson betiko itaunari.

— Prest zagoz Mikel? Gaur animatu zara balleteko tutua janzten.


— Bai, gaur bai ama.

Isilean egin ebeen bidea, eta akademia-ra sartu ziranean an egoan Jon beti bezala irribarretsu eta pozik. Ez zan bapere arritu Mikel ikustean, bere lagun bera zan, arropak ez eban desberdin egiten, berari zan modukoa gustatzen jakon. Mikelengana urbildu eta bere posizioan jartzen lagundu eutson, eta belarri-ra xuxurlatu eutson:

— Oso guapa zagoz Mikele!, eta biak barrez asi ziran.



# EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (V.)



## 2. ZATIAN.

### Sarreratik datorrena.

#### Mikel Iriondo giza iztilariak<sup>(1)</sup>.

Amerikako Journal Physikal Anthropology aldizkarian irakurrita esaten dau<sup>(2)</sup>: Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egi-ten dirala.

Bere eritzian, orube<sup>(3)</sup> edo lur jabetasun orre in lenaldi edo antziñatasuna adierazten dau.

Eta azaldu leiken gauzea: Europeoak, edo Ekialdeko Omosapiens euskal oiñarrizkoak, Mendebaleko euskaldunak baiño geiago nastu zirala, orain 7.000 edo 5.000 urte Ekialde Erdetik erri-aldan etorri ziran lur lantzaile edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Eta teknika arloko trebetasun orreik Euskalerrira, geiago eldu zirala Jakintzazko trebetasunaren artu emonetik, endak nastu bide- tik baiño.

Orren itzulpena: Euskaldunak, Europan dagozan jendekuntz ta izkuntz ezbediñak ja- kinda, bere



lurraldetan Indoeuropeizatuta, ez gagozan azkeneko bakar lekukoak garala, e-san nai dau.

-Mikelek eritzi au nabarmentzeko: Mundu oneitan, *dana dala besterekiko edo besteganakoa*<sup>(4)</sup>, eta euskaldunak besteen artean edozelako nastetan ibili barik, baita eurentzat eta euren seme-alabeen gorputzarentzat kokamenezko bizi-leku ta inguru basati orreik daukiezan eragipenaren gaiñetik, gizakumeari zeozere bereizgarritzen badautsola, daukazan nortasunaren trebetasun edo ta gaitasun<sup>(5)</sup> aundiak dirala.

-Eta euskalerritik, europatik bezala, danak aldatu dirala esaten dau.

Orren esan naia: *euskaldunen askatasunezko demokrazia, muga-bagekoa eta zabala izanez gain*, euskal edesti osoan neurri orren zintzotasunakin, lotsagizunezko ga-

(1) Giza-iztilaria = antropòlogo. (2) 2.003an Urrillaren 13an Diaro Vasco'k batu ebana. (3) Orubea = asentamiento. (4) Besterekiko edo besteganakoa = relativo. (5) Andi-gaitasun = propensìon a crecer. Gaitasuna = idoneidad, capacidad, habilidad, disposiciòn.



rrantzi aundia emon dautsela *bere sendi, izkuntz eta daukan zentzun aundiko nortasunari* esangura dau, eta bere biziaren azkeran, egi aundiz ibili dituzan bideak, beti lez gaur be, Jainkoari begira egin gura dabezelako da.

## Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.

Geiago esaten dau:

-Euskalerrria, Europako erri zarrena dala.

-Bere izkuntza: Kaukasotik Atlant Itsasoraiño eta Afrikatik Europaren Iparralderaiño, Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala.

-Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri ba-tzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

## Asia eta Europan, Omosapiens edo kromañoien orubea ta antolakuntza.

*Neolitiko edo Paleolitiko bigarren erinduaren arri aldia amaitu zanean*, Eneolitiko aldian sartu gintzazan, Asian K.a. 9.000 urte eta Europan 7.000 urte inguruan zala, Asiako lurraldearen eguraldi beroagoagaitik, Europa baiño ia 3.000 urte inguru aurretuta egon ziralako, K.a. 3.500 urterarte iraun ebana, Tupiki<sup>(1)</sup> aldian sartu arte.

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan: Euskerazko leen Izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik bage, eta mi-

llaka urte ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran, bakoitza beren batzar-nagusiko babespean.

Mundu bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduraren eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin gordiñik aurka egin ezkeru, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur leiñuetan, Afrika, Europa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Orduko leiñuak, milla urte askotako aukera orreitan lortu eben, gaur oraindiño euskalerrriak daukan nortasunezko izkuntza eta oitura demokratikoak, gure Lege Zarrak esaten dauan lez.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakin-tzazko aztura arloan gaztelu bat bakarrik ezin eben egin, eta orko bidetik asi ziran berexkatzen, antz-gabeko izkuntzatan.

(1) Tupiki aldian = edad del bronce, K.a. 3.500'etik burdiñeko aldian 1.400'eko urtean sartu arte.

Alan da guzti, nai ta gizarentzat, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izanda Mundu zabal orreitan, mendi, aran, euri, izotz, egu-giro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta lore di antzeko ezberdintasunai, bizi ekintzaren bidez gauza guztiei bereriki izen berexiak emon eta antz-gabeko izkuntzatan ezarri, aukera barri orrek ez dau nai esan, guztiz banakatu egin zirala, leiñutasunaren auzotasunezko urbiltasunean eukazan arreman edo alkar ikusteak, zaindu be egiten ebazalako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben: Aurreko *jendekuntz galdua* dana.

Baleiteke, baiña Mundu onek daukan gizaren jarraikuntza ikeretzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, nai ta ainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera: *Euskerea bere jaiopera argitzen dauan izkuntz bakarra dala*.

Gaur egunean, ez da edozelako gauza esate ori: Euskereak bere jaiopera argitzen dauan izkuntz-bakarra dala esateagaz, guk Paleolitiko-Neolitiko jendekuntzaren aitorzailleak garela esaten daualako.

## Oar txiki bat.

1.810-1.812ko konstituzioaren asmatzail *espainiar katoliko aberkide fazizta oneik*, Erroman 325ean Nizeako eleiz-batzarrean, bereztasunaren aurka norkeriz katoliko asmatu ta legeztu egin zan lapurtza aundienetatik euren eskubideak artuta, orain daukien *ministerio de*

*educaciòn y ciencia* bidez, goi-maillako ikastetxearentzat idazten dabezan liburu guztietan eta nik aurrean daukan euren *edesti-aurreko* liburu onetan batez be, ezeren lotsa barik, espainiar izena ordukoa izan balitz-bezela idazten dabe.

Argi ikusten da emen, oraindiño XVn gizaldian *erriak-sortzen*, edo ta munduko erri guztiak menperatzen *katolikotasunezko aberrikuntzan kolonizetako alegiñetan* asi ziranean, eta orretarako eleiza katolikoaren aita-santuak emon eutsoezan baimenagaz, orduan asmatu ebezan legeekin dabizela orain be.

Lotsarik eukingo ote dabe ?.


Nik dakidanagaitik, Jaungoikuak gai-gizatutako iñori, ez dautso emon *jabetasunezko edo berentzako izan balitz bezela ezer*<sup>(1)</sup>, ilten danean emen geratzen diralako gaiezko gauza guztiak.

Egia da orduan ba, gure baitaren gogo aukititik jarraibide edo jarraidun agertzen jakuna, mundu onetan: *nor-bereren arduratik kanpo, ez dagola iñungo jabetasunik*.

Euskalerrria, benetako ardureagaz ibili zan, egin bear izan ebezanak, Jainkoak bere sorraldian Ludi oneri ipini eutsozan baldintzakin adosten, eta lortu be *euskal aberriaren ardurea zein zan jakitea*, orregaitik dira bere buruzbide edo erabakiak eskubide osokoak, *bere nortasunezko ardurean, eskubide osokoa izatera eldu zalako*.

Eta emen arrigarriena: Euskalerrriaren Nortasunak, Paleolitiko Neolitikoaren ereduazko *aitortza* euki, eta Izadi onen *etorkizunezkoa* izendatu barik, iñungo on-

(1) *Jabetasunezko edo berea izan balitz bezela ezer = Dios en esta vida, a nadie da nada en propiedad.*







dorengo eta esku-biderik ez daukan espainiar asmatzaille katoliko-aberikide lotsagabekoa-gaitik menperatuta egon bear, Nizeako bi-detik aita-santuak bedeikapena emoten dau-tsoelako!.

Ez da arritzekoa ba, gaur Europa, Ameri-  
ketan eta mundu osoan sortzen dana.

Euren agintaritza norkeriz, berezko ardu-  
ratik kanpo ibilteagaitik, daukazan langille edo  
kide guztiak euren barneko ustez jabledunak  
sendituta, *danak lapur agertzea*, edo berezko  
errigizarreak menperatzeko, eta bizitzeko bear  
daben guztia euren kontrolpean eukiteko, *la-  
purretan ibili bear izatea*.

Orregaitik esaten dot sarritan, norkeriz bizi  
gura daben jakintsu batzuk, mundu onen giza-  
dia, *ankaz-gora bizitzen ipini gura dabela*.

Gaurko katuak be badakie, ezin dala bizi  
alango legezko baldintzagaz, *Gai-Ludi oneta-  
ra ez garalako etorri orretarako*.

Esan onegaz, guzurra dala esan leike, edes-  
tiaren azalkeran eta guzurtasunezko illunta-  
sunak nastuta iraun egian, gaurko edestilari  
eta izkuntzalarien artean oraindiño ainbeste  
maltzur-ganorabako ta irabazkoi<sup>(1)</sup> elementu  
egotea, ta maltzurtasunezko almen guztiagaz  
ibilten dabizela esaten dotenean, ez dot esaten  
lengo ta gaurko jakintsu guztiak dirala errudu-  
nak. (Naita geienak izan).

Menperatzaille aundi orreik, munduko gi-  
zarte ta gauzaren egiagaz maltzurtasunez sor-  
tu eben naaste-borrazteko illutasunaren zirri-  
borroak ez daitezcan argitu, beti alegindu dira  
euren norkerizko lege edo daukien indarraren  
eragipenagaz, ikertzaillearen azterkuntzari

(1) Irabazkoi=interesados.

eragozpideak ipinten, euren lanak denbora luzeetan edo egundo ez zitezten argitu.


Eta orretarako, ekanduz edo bereztasunaren jakintzazko oitura onenean ibili diran edestiko izkuntzalariei, egia dana, siñispidez edo frogapeneko eragozpenaren eskaeran eta indarrezko keiñadagaz argituteko beartuta, zirri-borro aundi orrein aurrean aurkitu ziranean, ez jakiñezko utsetik asi bear ebezan lan orreik egiten, guzur eta illuntasunezko zirri-borro orreik, margoaren askoko esku emanaldi azalaren goialdetik, kontuz eta banaka asi bear ebelako egia askatzen, geroago adieraziko dodan lez.

Norkeriz dabiltzan katolikuak, maltzurtasunezko guzurak irabazkoi politiko biurtu gurean, egi-billa dabizenen ikerlarien lanak, zalantzazko eritzietan artzen eutseezan egiten ebazanak, lan orreik al eben denboran luzatuz, aspergarri edo gogaituta, ia bertan izten ba ebezan billaketa edo azterkuntzazko lan orreik, ***gaurbe sortzen jakun lez.***

Luzatzeko eragozpen guzti orreik alperrik baiña, ***Jainkoaren legearekin*** oiñarrituta egonda, mugatuta be gagozelako, eta eurak emonda egiaren jarraibidea, jakituri aundiko ikertzaille orrein egizko lan guztiak, goian esan dodan lez, bereztasunezko egiaren egokitasunera, ***gurabage bideratuta geratzen dira.***

**Atutxa' tar Paul**

*Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an*



# EUSKERAZALEAK

## Urteroko Batzar Nagusia

Martxoaren 22an egunean  
EUSKERAZALEAK  
alkarteak urteroko  
Batzar Nagusia egingo dau  
Lenengo deia: 18:30ean eta  
Bigarren deia 19:00etan

### GAIAK

Aurkezpena: Zuzendariak  
Aurreko Batzar Nagusia Akta: Pablo Atutxa  
Urteko kontuak: Diruzaiñak  
Urteko ekintzak: Zuzendariak  
Batzordekide barriak, balegoz  
Erregoak eta eskariak

### ZUZENDARIAK

## Asamblea General Anual

El 22 de Marzo celebrará  
la Asociación  
EUSKERAZALEAK  
su Asamblea General anual  
Primera convocatoria 18:30 tarde  
Segunda convocatoria 19:00 tarde

### ORDEN DEL DÍA

Presentación: El Presidente  
Lectura del acta del año anterior: Pablo Atutxa  
Cuentas anuales: La Tesorera  
Actividades anuales: El Presidente  
Nuevos miembros de la Junta si los hubiere  
Ruegos y preguntas

### EL PRESIDENTE

# ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK EUSKERAZALEAK

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kалан (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



**Txakolin, txakolin,  
txakolinak on egin.  
guztiok edaigun  
alkarrekin.**

**Bihotza pozez betetzen da  
txurrut bat eginik  
ez dago munduan  
edari hoberik.**

**Txakolin, txakolin,  
txakolinak on egin.  
Maritxu, arintxo da  
Martintxo.**

**Ase naiz naparrez,  
zuri, gorri ta beltzez.  
Jarri naute minez,  
gabe ere onik ez.**